

Familiei begirako eskaintza

Hitzaldi edo sentsibilizazio saioak

Nori zuzendua	Izenburua	Azalpen laburra
Euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten gurasoentzat	Disfrutando de los idiomas: ¿Cómo ayudar a nuestros/as hijos/as con el euskera y los estudios?	HH eta LHko ikasleen gurasoentzako saioak. Eleaniztasunari buruzko eta euskararekin harremana zaintzeari buruzko mezuak, eta gurasoen kezka argitzea.
	¿Como ayudar a nuestros/as hijos/as con las tareas escolares si no sabemos euskera?	
	Aprendizaje y uso de lenguas: ¿Cuál es el papel del euskera en la vida y en el futuro de nuestros/as hijos/as?	DBHko ikasleen gurasoentzako saioa. Hizkuntza-sozializazioari buruzko eta euskararekin harremana zaintzeari buruzko mezuak.
Guraso euskaldunentzat	Gure seme-alabei euskararekin eta hizkuntza-ohiturekin laguntzearen erroka.	HH eta LHko ikasleen gurasoentzako saioak. Euskararen erabilera indartzera begirako aholkuak eta proposamenak.
	Euskara bidegurutzean: Zein egoera biziko dute gure seme-alabek?	DBHko ikasleen gurasoentzako saioa. Hizkuntza-sozializazioa buruzko eta hizkuntza-ohiturei buruzko azalpenak eta aholkuak.

Oharra: Saioak aurrez aurrekoak edo telematikoak izan daitezke

Lantegi edo saio praktikoak

Nori zuzendua	Izenburua	Azalpen laburra
Euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten gurasoentzat	<i>Kuku</i> , haurrekin hitz egingen hasteko.	HH eta LHko gurasoentzako proposamenak eta tresnak. Lehenengo <i>Kuku</i> argitalpenean oinarritua eta bigarrena opor garaietara begirakoa.
	Opor garaiko kutxa magikoa.	

Aholkularitza eta dinamizazioa

Nori zuzendua	Azalpen laburra
Gurasoen euskara batzordeen dinamizazioa	Herri edota ikastetxeetako guraso batzordeei begirako formazio saioak eta dinamizazio eskaintza: oinarriak lantzetik jarduera zahatzetara.
Eskoletako familientzat Ahobizi dinamika egokituaren dinamizazioa	Herri edo ikastetxeetan HH eta LHko haurren gurasoei begira Ahobizi jarduerak sortzeko eta dinamizatzen laguntzeko eskaintza.

Oharra: Saioak aurrez aurrekoak edo telematikoak izan daitezke

Disfrutando de los idiomas, ¿Cómo ayudar a nuestros/as hijos/as con el euskera y los estudios?

Nori zuzendua:

Beraien seme-alabek Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan ikasten duten guraso erdaldunei.

Helburua:

Euskaraz ez dakiten gurasoek hainbat kezka izaten dituzte elebitasunaren inguruan eta seme-alaben ikaste prozesuaren inguruan. Kezka zehatz horiek erantzutea eta seme-alabei euskararekiko harreman on bat eskaintzera begirako aholkuak ematea izaten da hitzaldi honen helburu nagusia.

Edukiak:

Seme-alabak eleaniztunak izatearen aldeko proposamena egiten da hitzaldian, eta horri begirako oinarri batzuk ematen dira: Nola ikasten dira hizkuntzak? Zeintzuk dira eskolaren mugak? Zer hartu behar genuke kontuan? Bi bidetatik seme-alabei euskararekin harreman indartsu bat eskaintzeko proposamenak aurkezten dira:

- Etxetik / familiaratik: gurasoek ahalik eta euskara gehien eskaintzea eta etxean euskararen lekua zaintzea (opariak, telebista, musika, liburuak, sarean dauden baliabideak eta abar)
- Gizartetik: eskolaz kanpo ahalik eta euskara gehien eta euskararekin ahalik eta harreman indartsuena eskaintzeko aholkuak (eskola orduz kanpoko jarduerak, kultur ekitaldiak, euskararen aldeko ekimenak eta abar)

Horrekin batera, gurasoen hainbat kezka erantzuten dira. Egoera zehatzekin lotutako galderak eta kezkak:

- Nola lagundu eskolako lanekin euskaraz ez badakigu?
- Ez dut euskaraz ondo hitz egiten. Erabili behar al dut nire seme-alabekin?
- Gaztelania ondo ikasiko al dute? Euskara ondo ikasiko al dute?
- Zein dira elebidun izatearen abantailak eta desabantailak?
- Zer egin seme-alabek euskara eta gaztelania nahasten badituzte?
- Nola lagundu elebidun izan daitezen?
- ...

Ezaugarriak:

Ordu eta laurden inguruko hitzaldia da.

Alkarbidek eta Bizkaiko hainbat udalek argitaratutako *Disfrutando de los idiomas* gidako edukiekin bat eginda jarritako izenburua.

¿Cómo ayudarles en las tareas escolares si no sabemos euskera?

Nori zuzendua:

Beraien seme-alabek Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan ikasten duten guraso erdaldunei.

Helburuak:

Euskaraz ez dakiten gurasoentzat kezka handia izaten da eskolako lanen gaia, seme-alabei ikasketa prozesuan ezin izango dietela lagundu beldur baitira. Hitzaldi honek kezka zehatz horri erantzuten dio:

- Ikasketa prozesuan laguntzeko gurasoek euskara jakitea ez dela ezinbestekoa ikustaraztea.
- Eskolako lanekin laguntzeko ideia zehatz eta praktikoak ematea.

Edukiak:

Saioaren edukiak hauek dira:

- Eskolako lanei buruzko oinarri nagusi batzuk ematea: ikasteko autonomia garatzera begira, ikasteko ohiturak sustatzera begira, motibazioa sustatzera begira...
- Ezaugarri ezberdinetako eskolako lan batzuk gurasoekin egitea eta horietan laguntzerakoan hizkuntzaren muga gainditzeko ideiak ematea.

Ezaugarriak:

Ordu eta laurden inguruko hitzaldia da.

Aprendizaje y uso de lenguas. ¿Cuál es el papel del euskera en la vida y en el futuro de nuestros/as hijos/as?

Nori zuzendua:

Beraien seme-alabek Bigarren Hezkuntzan ikasten duten guraso erdaldunei.

Helburuak:

Gure seme-alabak sozializazio prozesu batean daude eta horren barruan hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da: ikasten dituzten eta inguruan dituzten hizkuntzek zein balio duten barneratzen dute, hizkuntza-arauak zeintzuk diren jabetzen dira, egunerokotasunean estres linguistikoa bizi dezakete eta abar.

Hitzaldi honetan seme-alabak eleaniztunak izateko prozesuan kontuan hartu beharreko oinarri batzuk aurkezten dira, baina tarte handia ematen zaio euskararekin duten harremana eta ibilbidea aztertzeari eta horrek seme-alabengan eta beraien ingurukoengan duen eragina ikusteari. Seme-alabek euskara maila ona izatea eta euskararen erabilerarekiko jarrera egokia izatea gurasoen ardura badela eta seme-alaben onurarako izango dela lantzen da.

Edukiak:

Eduki nagusi hauen inguruan hitz egiten da saio honetan:

- Eleaniztasuna eta euskara maila ona izatea: eleaniztasunaren aldeko mezu bat ematea eta bide horretan zer zaindu dezakegun ikustea. Ikasketei begira euskara maila egoki bat izateak duen garrantziaz konturatzea, eskolak dituen mugak ikustea eta gurasoen laguntzaren beharra azpimarratzea.
- Euskara dakigunon ezaugarriak: gaur egungo euskaradunon ezaugarriak ikustea eta azken hamarkadetan zein aldaketa izan dituen aurkeztea.
- Seme-alaben hizkuntza-ohiturak: hizkuntza-ohiturei dagokionez gazte tipologiak ikustea. Beraien seme-alabak non dauden aztertzea. Horren beraiengan eta ingurukoengan zein eragin duten aztertzea.
- Hizkuntza-sozializazioan zein faktorek eragiten duten ikustea, gure inguruan faktore horiei dagokionez zein egoera dugun aztertzea, eta zenbait aholku eta ideia aurkeztea.

Ezaugarriak:

Ordu eta laurden inguruko hitzaldia da.

Seme-alabei euskararen erabilerarekin laguntzearen erronka

Nori zuzendua:

Beraien seme-alabek Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan ikasten duten guraso euskaldunei.

Helburuak:

Seme-alaben hizkuntza-ohituren oinarrian zer dagoen ikustea, eta ohitura horietan eragiteko zer eta nola egin dezakegun aztertzea.

Edukiak:

Seme-alaben hizkuntza ohituretan eragitera begira, gurasoei hiru bide garatzea proposatzen zaie hitzaldian, eta bide horietako bakoitzaren inguruko aholkuak ematen dira. Hauek dira bide horiek:

- Hizkuntza aberastasuna: Etxetik euskara aberatsa eskaintzea abiapuntu garrantzitsua da seme-alaben hizkuntza ohituretan eragitera begira. Horri begirako aholkuak eta ideiak emango dira saioan.
- Hizkuntzekiko jokabideak: Hizkuntza-ohitura asko imitazioz ikasten dira. Seme-alaben hizkuntza-ohiturak axola zaizkien gurasoek beraienak zaintzea komeni zaie. Hainbat ideia proposatuko dira honi begira.
- Hizkuntzarekin harremana: Hizkuntza-ohituretan eragin zuzena dute hizkuntzekin ditugun bizipenek, hizkuntzarekiko pertzepzioek, eta abar. Horri begira hainbat gomendio egingo dira hitzaldian.

Horretaz gain, hizkuntza-ohituren inguruan sortzen diren egoera eta kezka ere aztertzen dira eta zenbait aholku eskaintzen dira: lagunartean erdarara jo badute, euskañola eta abar.

Ezaugarriak:

Ordu eta laurden inguruko hitzaldia da.

Euskara bidegurutzean: Zein egoera biziko dute gure seme-alabek?

Nori zuzendua:

Beraien seme-alabek Bigarren Hezkuntzan ikasten duten guraso euskaldunei.

Helburuak:

Gure seme-alabak sozializazio prozesu batean daude eta horren barruan hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da: ikasten dituzten eta inguruan dituzten hizkuntzek zein balio duten barneratzen dute, hizkuntza-arauak zeintzuk diren jabetzen dira, egunerokotasunean estres linguistikoa bizi dezakete eta abar.

Euskara dakigunon ezaugarriak irauli egin dira epe nahiko laburrean eta horrek eragina du gure seme-alabengan. Hitzaldi honetan gai horien inguruko oinarri batzuk aurkezten zaizkie gurasoei, eta seme-alabei egoera horren aurrean baliabideak eskaintzeko aholkuak eskaintzen dira.

Edukiak:

Eduki nagusi hauen inguruan hitz egiten da saio honetan:

- Euskara dakigunon ezaugarriak: gaur egungo euskaradunon ezaugarriak ikustea eta azken hamarkadetan zein aldaketa izan dituen aurkeztea.
- Hizkuntza-arauak: gazteen arteko harremanetan hizkuntza-arauak zein diren ikustea eta hizkuntza-ohiturei dagokionez gazte tipologiak ikustea. Horrek gure seme-alabengan zein eragin duen ikustea.
- Hizkuntza-sozializazioan zein faktorek eragiten duten ikustea, gure inguruan faktore horiei dagokionez zein egoera dugun aztertzea, eta zenbait aholku eta ideia aurkeztea.
- Seme-alaben hizkuntza-ohituretan eragitera begira oinarri on bat jarri ahal izateko aholkuak eta proposamenak egitea.

Ezaugarriak:

Ordu eta laurden inguruko hitzaldia da.

Euskaraz ez dakiten edo gutxi gutxi dakiten gurasoentzako tailer praktikoak

Ku-ku! Haurrekin hitz egiten hasteko

Bizkaiko hainbat Udalek eta Alkarbide bilguneak argitaratutako Ku-ku haurrekin hitz egiten hasteko liburuan oinarritutako saioak dira.

Nori zuzendua:

0 urtetik 6 urtera bitarte dituzten eta euskara ondo ez dakiten edo gutxi gutxi dakiten gurasoei begirako saioak dira.

Helburuak:

Helburu nagusia gurasoak seme-alabekin euskara asko erabiltzera motibatzea da, eta horri begira beldurrak kentzea eta saioetan bertan hainbat esamolde eta jolas praktikatzeari.

Horrekin batera, ohiko hitzaldietan ematen diren mezu nagusienak ere eman nahi zaizkie: eskolaren mugak, gurasoen jarreraren garrantzia, eta abar.

Edukiak:

- Haurren hizkuntza adimenaren garapen faseen ideia nagusi batzuk hartuko dira abiapuntu moduan.
- Garapen faseen arabera seme-alabekin egoera ezberdinetan erabil ditzaketen proposamenak aurkeztuko zaizkie: bazkaltzeko orduan, bainurakoan, etxetik ateratzerakoan, parkean, kaletik doazenean...
- Dinamika eta tresna horietan behar den euskarazko hiztegia ere landuko da. Baina ez dira euskara ikasteko saioak, gurasoak seme-alabekin euskara asko erabiltzera gonbidatzeko saioak baizik.
- Abesti jolas batzuk ere aurkeztuko zaizkie eta beraiekin landuko dira.
- Bestalde, inguru hurbilean euskara asko eskaintzeko zer zaindu dezaketen landuko da: telebista, irratia, ipuinak, musika, webguneak, eta abar. Horietan zer aurkitu dezaketen eta baliabide horiek nola erabili landuko da.

Ezaugarriak:

Ordu eta erdi inguruko saioak dira. Lau saio diseinatu dira, baina antolatzaileek erabakiko dute saio bakarra, bi, hiru edo lau egin nahi dituzten.

Oporretako bizipenen kutxa magikoa

Nori zuzendua:

3 urtetik 9 urtera bitarte dituzten eta euskara ondo ez dakiten edo gutxi gutxi dakiten gurasoei begirako saioak dira.

Helburuak:

Helburu nagusia gurasoak seme-alabekin euskara asko erabiltzera motibatzea da, eta horri begira beldurrak kentzea eta saioetan bertan hainbat esamolde eta jolas praktikatzea.

Horrekin batera, ohiko hitzaldietan ematen diren mezu nagusienak ere eman nahi zaizkie: eskolaren mugak, gurasoen jarreraren garrantzia, eta abar. Bereziki seme-alabek euskararekin duten harremana zaintzea eta indartzea gurasoen zeregin bat dela barneratzea bilatzen da.

Edukiak:

- Opor garaian seme-alabekin egoteko aukera eta denbora gehiago izaten dute gurasoek. Tarte horretan euskarari lekua egiteko ideiak eta proposamenak aurkeztuko zaizkie.
- Opor garaian izaten diren bizipen eta esperientziak irudikatuko dira, eta horietan euskarari lekua nola egin azalduko zaie.
- Are gehiago, bizipen horiek kutxa batean jasotzera gonbidatuko ditugu, eta horri begirako ideiak eta adibideak landuko dira saioetan.
- Egoera horietarako hiztegia ere landuko da. Baina ez dira euskara ikasteko saioak, gurasoak seme-alabekin euskara asko erabiltzera gonbidatzeko saioak baizik.

Ezaugarriak:

Ordu eta erdi inguruko saioak dira. Lau saio diseinatu dira, baina antolatzaileek erabakiko dute saio bakarra, bi, hiru edo lau egin nahi dituzten.

Aholkularitza eta dinamizazioa

Familiei begirako ekimenen inguruan Aholkularitza eta dinamizazioa eskaintzen dugu.

Besteak beste:

- Guraso euskara batzordeak sortzeko aholkularitza eta dinamizazioa
- Familiei begirako aktibazio ekimenen diseinua eta dinamizazioa
- Herri edo ikastetxeetan familiekin euskararen erabileraren eta hizkuntza-ohituren gaiak lantzeko aholkularitza

Tokian toki eskaintza egokitu behar denez, gai haurn inguruzko informazio gehiago nahi izan ezker jarri harremanetan email edo telefono bidez.

Aurrekontuak

Guraso euskaldunentzako hitzaldiak	
Izenburua	Aurrekontua
Seme-alabei euskararen erabilerarekin laguntzearen erronka.	285,00
Euskara bidegurutzan: Zein egoera biziko dute gure seme-alabek?	

Euskaraz ez dakiten gurasoentzako hitzaldiak	
Izenburua	Aurrekontua
Disfrutando de los idiomas. ¿Cómo ayudarles con el euskera y los estudios?	285,00
¿Cómo ayudarles en las tareas escolares si no sabemos euskera?	
Aprendizaje y uso de lenguas. ¿Cuál es el papel del euskera en la vida y en el futuro de nuestros/as hijos/as?	
Ku-ku! Hurrekin hitz egiten hasteko	
Opor garaiko bizipenen kutxa magikoa	

- 2023 urterako prezioak
- Gastu guztiak barne
- BEZ gabeko jarduera
- Antolatzaileen esku kartel eta esku-orri ereduak jarriko dira, formatu elektronikoan, egoki ikusten dituenak erabili ditzan.
- Hauetako hainbat saio telematikoki ere egin daitezke.
 - *Hizlariak: Iñaki Eizmendi Arsuaga, Arrate Gisasola Izeta, Maddalen Aristegi Sanchez, Jone Idigoras Del Barrio eta Maialen Cuevas Viota*